

Topalekua

70 zk. 2011ko azaroa

noviembre 2011 - n.º 70

orr. 1: *Herri Kontuen Euskal Epaitegiak Gizarte Kontseiluari aurkeztu dio 2008ko UPV/EHUko Fiskalizazioaren Txostena*

orr. 2 eta 3: *“Urrutira iristeko kemena”, Espainiako goi-mailako hezkuntza erreformatzeko 25 gomendio*

orr. 4: *Unibertsitate publikoetako gizarte-kontseiluek bikaintasunaren erronkak aztertzen dituzte*

HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAK GIZARTE KONTSEILUARI AURKEZTU DIO 2008KO UPV/EHUko FISKALIZAZIOAREN TXOSTENA

Tribunal Vasco de Cuentas / Herri Kontuen Euskal Epaitegiko presidenteak, José Martínez Churriaguek, pasa den azaroaren 16an egin zen UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren osoko bilkuran aurkeztu dio 2008. ekitaldiko Fiskalizazioaren Txostena, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko finantza- eta ekonomia-jardueri buruzkoa. Epaitegiko presidenteak esan duenaren arabera, Unibertsitateak modu egokian bete ditu bere jarduerak arlo horretan erregulatzen dituzten legezko arauak.

Txostenaren aurkezpenean, aurrekontuari, langile-gastuei eta administrazio-kontratazioari buruzko salbuespen batzuk zehaztu zituen Martínez Churriaguek. Halaber, Kontseiluaren Osoko Bilkurari aurkeztu zaion txosten horrek atal bat zuen 2006-2010 aldirako Inbertsioen eta Azpiegituren Urte Anitzeko Planari buruzkoa. Atal horretan ondorio batzuk azpimarratu dira Planaren aldaketen, finantzazioaren eta administrazio-kontratazioaren inguruan.

Kontuak ematea. 2010eko Txosten Ekonomikoa

Bestalde, Unibertsitateak Gizarte Kontseiluari kontuak emateko prozesuaren barnean Osoko Bilkurak onartu egin zuen UPV/EHUko 2010eko Txosten Ekonomiko Ikuskatua. Aldi berean, Osoko Bilkurak gomendio batzuk eman zituen datozen ekitaldietara begira. Besteak beste, honako hauek dira nabarmentzekoak:

- Soberakin guztien azterketa zehatza egitea.
- Dagokien erakundeen aurrean beharrezko kudeaketak egitea, ordaintzeke dauden diru-laguntzak onar ditzaten.

Bestelako hitzarmenak

Era berean, Kontseiluak aurrekontu-aldaketa batzuk onartu zituen, eta Ikasketa Osagarrien bost ikastaroren prezioak baliozkotu zituen, beste gai batzuen artean.

“URRUTIRA IRISTEKO KEMENA”, ESPAINIAKO GOI-MAILAKO HEZKUNTZA ERREFORMATZEKO 25 GOMENDIO

“Urrutira iristeko kemena: etorkizuneko Espainiarako unibertsitate sendoak” txostena nazioarteko aditu-batzorde batek prestatu du, *“2015 UNIBERTSITATEA ESTRATEGIA: unibertsitateen ekarpena Espainiaren aurrerapen sozioekonomikoan (EU2015)”* programaren esparruan eta duela zenbait egun Hezkuntza Ministerioari helarazi zitzaion. Nazioartekotzeari, irakaskuntza- eta ikerketa-bikaintasunari, ingurune sozioekonomikoaren laguntzari eta gobernantza arrazionalizatzeari loturiko 25 gomendio planteatzen ditu, Espainian goi-mailako hezkuntzaren erreformari aurre egiteko.

Aipatu nazioarteko aditu-batzordearen presidentea Rolf Tarrach da, Luxemburgeko Unibertsitateko errektore eta CSIC-en presidente ohi dena eta honako kide hauek ditu: Eva Egron-Polak, International Association of Universities elkarteko idazkari orokorra; Pierre de Maret, Bruselako Unibertsitate Libreko irakasle eta errektore ohi; Jean-Marc Rapp, Lausanneko Unibertsitateko errektore ohi eta Unibertsitateen Europako Elkartearen presidentea; eta Jamil Salmi, Munduko Bankuko hezkuntza tertziarioaren koordinatzailea. Batzordea Hezkuntza Ministerioaren ekimenez osatu zen, EU2015 estrategia ebaluatze (erreformarako helburuak planteatzeko, emaitzak ezartzeko eta ebaluazio-adierazleak definitzeko helburua duen asmo handiko proiektua), orobat haren hurrengo eguneratze edo testu osagarriak baloratzeko.

Batzordearen txostena hiru kapitulu handitan banatuta dago eta horietan honako gai hauei buruzko proposamenak analizatzen eta gauzatzen dira: irakaskuntzako eta ikerketako bikaintasunaren garapena; ingurune sozioekonomikoaren laguntza eraginkorra; eta gobernantza indartzea eta arrazionalizatzea. Nazioartekotzea goi-mailako hezkuntza-sistemako maila guztietan mundura zabal irekitze gisa definitzen da; zeharkako gai gisa jorratzen da eta txosteneko hiru kapitulu nagusietan ageri da. Batzordearen gomendio guztietan Espainiako edo nazioarteko unibertsitateen jardunbide onen adibideak identifikatzen eta proposatzen dira.

Laburbilduz, esan daiteke adituek gehiegi arautzea saihestea gomendatzen dutela, erreforma estrategikoen garapena lehenetsiz, batez ere unibertsitateen gobernuari dagokionez. Hain zuzen, haiei askatasuna eman behar zaiela diote, arrakastak eta porrotak izan ditzaten, eta borondate eta kemenez jardun dezaten ahalmen osoa garatzea eragozten dizkien mugak gainditzeko.

Irakaskuntzan eta ikerketan bikaintasuna lortzeko, adituek hauek gomendatzen dituzte: irakasleak nazioartean dei eta kontrata daitezen sustatzea; ingelesa eza-

gutzea sustatzea postu akademiko guztietan; lan-aukera onak eskaintzea irakasle eta ikertzaile onenak hurbiltzeko; autonomia instituzional handiagoa ematea, unibertsitateko langileen karrera akademiko eta administrati- boak kudeatzeko; eta instituzioen kalitatea kontrolatzeko kanpo sistemak ezartzea.

Ingurune sozioekonomikoari laguntza eraginkorragoa eskaintzeko, adituek zenbait neurri proposatzen dituzte, hala nola: goi-mailako hezkuntza eskuratzeko berdintasuna sustatzen duten estrategiak finkatzea; laguntzen diru kopurua handitzea beketarako eta errenta-mailegutarako, ikasleen beharren arabera; muga ekonomikoak eta ekonomikoez bestelakoak desagerrarazteko estrategiak garatzea; unibertsitateen misioak argiago bereiztea; lan-merkatuko berrelikadura-mekanismoak zabaltzea; enpresekiko lotura estuagoak lortzea; diru-pizgarriak ematea eskaera sustatzeko; unibertsitateen eta berrikuntzako Estatuko eta eskualdeko sistemen arteko loturak indartzea; edo unibertsitateek berrikuntzan laguntzeko duten gaitasuna indartzea.

Gobernantzari buruzko kapituluak, txostenak honako hauek gomendatzen ditu: goi-mailako aholkularitza-kontseilu estrategiko bat sortzea; Errektoreen Konferentzia eta Unibertsitateen Kontseilua politiken diseinuan rol aktiboa goa izan dezaten mobilizatzea; unibertsitate-paisaia berria sustatzea, borondatezko fusioen eta nazioarteko bikaintasun-campusen bidez; modu integratuan kudeatzea goi-mailako hezkuntza, zientzia eta ikerketa; eta unibertsitatearen gobernu-organoak sinplifikatzea.

Gomendioak ezartzea

Ondorengo taulan txosten horretan planteatutako gomendioak eta kasu bakoitzaren ezarpen-zailtasuna jasotzen dira, baita horien kostua eta litekeen inpaktua ere:

2015 Unibertsitatea Estrategia 2008an taxutu zen Unibertsitateen Kontseiluaren eta Unibertsitate Politikaren Konferentzia Orokorraren partaidetzarekin eta Unibertsitateak Modernizatzeko Europako Agendaren ildo beretik dago diseinatuta. Hori 2011ko irailean eguneratu zen “Hazkunderari eta enpleguari laguntzen - Goi-mailako hezkuntzako Europako sistemak modernizatzeko agenda” txostenarekin. Horren helburua Europako unibertsitateak modernizatzen eta erreformatzen laguntzea da, ezagutzen oinarrituta dagoen eta sozialki integratzailea den hazkunde sozioekonomikorako, non enplegu gehiago eta hobeak egongo baitira, eredu jasangarri berrira egiten duten ekarpena hobetzeko. Nazioarteko aditu-batzordea 2010eko uztailan sortu zuen Hezkuntza Ministerioak.

GOMENDIOA	ZAILTASUNA	KOSTUA	INPAKTUA
Karguak eta unibertsitate-irakasleak nazioartean deitzea eta kontratatzea	baxua (irakasleak), altua (dekano eta errektoreak)	ertaina	altua
Kontratazio-esparrua zabaltzea	baxua	baxua	altua
Ingelesa menderatzea	baxua	baxua	altua
Lan-aukera onak eta banako autonomia eskaintzea irakasle bikainei	ertaina	baxua	altua
Autonomia instituzionala karrera akademiko eta administratiboak, igoerak eta sariak kudeatzeko: baldintza erakargarriak eskaintzea	altua	ertaina	altua
Kalitate kontroleko kanpo sistema erraza ezartzea, kalitatea kudeatzen eta instituzioak hobetzen laguntzeko	altua	baxua	altua
Kalitate-kontrolaren esparruan hobekuntza-neurri zehatzak hartzea	baxua	ertaina	altua
Berdintasuna sustatzeko estrategia finkatzea	baxua	baxua	altua
Laguntza-paketei (ikasleentzako bekak eta maileguak, haien beharren arabera) diru-esleipen handiagoa ematea	ertaina	altua	altua
Muga ekonomikoez bestelako mugak desagerrarazteko estrategia	baxua	ertaina	altua
Funtzioen bereizketa argiagoa	ertaina	ertaina	altua
Lan-merkatuaren atzeraelikadura-mekanismoak hedatzea	baxua	baxua	altua
Industriarekiko eta beste enpresekiko lotura estuagoa	ertaina	baxua	altua
Bizitzan zehar ikasteko aukerak zabaltzea	altua	ertaina	altua
Diru-pizgarriak, eskaeren aldeko esku-hartzeak igo daitezzen	ertaina	altua	altua
Unibertsitateen eta berrikuntzako Estatuko / eskualdeko sistemen arteko loturak indartzea	baxua	baxua	altua
Unibertsitateen berrikuntzara ekarpenak egiteko gaitasuna indartzea	baxua	baxua	altua
Goi-mailako kontsulta-batzorde estrategikoa	baxua	baxua	altua
Errektoreen Konferentzia eta Unibertsitateen Kontseilua mobilizatzea	ertaina	baxua	ertaina
Paisaia berri baterantz: fusioak eta nazioarteko bikaintasun-campusak	ertaina	ertaina	altua
Goi-mailako hezkuntzaren, zientziaren eta ikerketaren kudeaketa integratua	baxua	baxua	altua
Unibertsitate-organo bakarra sortzea	altua	baxua	altua
Zuzendaritza-postuak / errektoreen hautaketa hobetzea	altua	baxua	altua
Esleipen globalak eta guztizko kostuen kontabilitatean oinarritutako finantza-kudeaketa ezartzea	ertaina	altua	altua
Antolamendu-kulturekiko komunikazio adeitsua	ertaina	baxua	altua

UNIBERTSITATE PUBLIKOETAKO GIZARTE-KONTSEILUEK BIKANTASUNAREN ERRONKAK AZTERTZEN DITUZTE

Enplegura orientatutako azterketak diseinatu behar dira, enpresekiko harremanak estutu behar dira transferentzia teknologikoa hobetzeko eta ikasleei karrera profesionale-rako gaitasun erabilgarriak eman behar zaizkie. Horiek dira Unibertsitate Publikoen Gizarte Kontseiluen Konferentziak eta Valentziako Unibertsitate Politeknikoaren Gizarte Kontseiluak azaroaren 17 eta 18an Valentzian antolatutako “Gizarte Kontseiluak bikaintasunaren erronkarako bidean” Jardunaldien ondorioak.

Enplegarritasuna hobetzeko, Kontseiluen ustez, prestakuntza-eskaintza eta ikerketa-jarduera merkatuaren eta gizartearen eskaerekin bat etortzea lortu behar da. Horrek lagundu egingo du Unibertsitateak aurrerapen ekonomikoaren eta ongizate sozialaren sustatzaile gisa duen rola. Horretarako, Konferentziak unibertsitatearen eta enpresaren arteko harremanak estutzeko apustua egin zuen, baita goi-mailako hezkuntza-instituzioen eta eragile ekonomiko eta sozialen arteko lankidetzak aktiboa sustatzeko ere, transferentzia teknologikoa hobetzeko, unibertsitatearen ekintzailetasuna sustatzeko eta mugikortasunean laguntzeko estrategiak diseinatzeko orduan.

Gizarte Kontseiluen Konferentziako presidente Joaquín Moya-Angelerrek halaber adierazi zuen Espainiako unibertsitateek espezializazioaren aldeko apustua egin behar dutela bikaintasuna lortzeko eta ingurune bakoitzeko beharrik ezagutzeko elementu gako gisa, eskaintza garapen ekonomikoari egiten dion ekarpena hobetzera orientatuz.

Gizarte Kontseiluentzako, “berebizikoa” da, ezagutza transmititzeaz gainera, unibertsitateak “ikasleak lan-esparrurako trebezia eta gaitasun erabilgarrietan gaitzea, prest egon daitezen behar ekonomiko, sozial eta lanekoei aurre egiteko eta horietara moldatzeko”.

Jardunaldiak bi maisu-hitza idiren eta hiru mahai-ingururen inguruan egituratu ziren. Lehen konferentzian, Hezkuntza Ministerioi Unibertsitate Prestakuntza eta Orientazioko Zuzendari Nagusi Mercedes Chacón-ek “Enplegarritasunaren kontzeptua, enplegua eta enplegarritasuna unibertsitate-esparruan. Unibertsitateko ikasleen ekintzailatza eta kanpo praktikak” jorratu zuen. Hurrengo egunean UAMeko Ekonomia Aplikatuak irakasle titular den Carmen Pérez Esparells-en txanda izan zen eta gaurkotasan handiko galdera bati erantzuten saiatu zen: “Ranking-ek ongi neurtzen al dute unibertsitateen kalitatea?”.

Azaroaren 17ko goizeko mahai-inguruaren gaia “Unibertsitateen eta enpresen arteko harremana: unibertsitate-ikasleen enplegarritasunari buruzko alderdi gakoak. Oraina eta etorkizuna” izan zen eta horretan honako hauek parte hartu zuten hizlari gisa: José Javier Cha-



Joaquín Moya-Angeler. Espainiako Unibertsitate Publikoen Gizarte Kontseiluen Konferentziako presidentea

morro, Centum Solutions-eko zuzendari nagusia; Juan Antonio Germán Monge, Mercadona-ko kanpo harremanetarako zuzendari nagusia; eta Carlos Ayats, Valentziako Unibertsitate Politeknikoko Enplegu eta Gizarte Ekintzako Errektoreordea. Moderatzailea Rafael Benavent izan zen, Jaume I Unibertsitateko Gizarte Kontseiluko presidentea. Jardunaldi horretan bertan, arratsaldeko saioan, bigarren mahai-inguru bat egin zen: “*Parke zientifiko eta teknologikoak, enpresek parkeetan parte hartzeko duten interesa eta enpresek unibertsitatearen barruan egotean duten ikuspegia*”. Mahai horren moderatzailea Francisco Borja izan zen, Miguel Hernández Unibertsitateko Gizarte Kontseiluko presidentea, eta honako hizlari hauek egon ziren: Francesc Santacana, CYD Fundazioaren presidenteordea; Antonia Salinas, Valentziako Erkidegoko Parke Zientifikoen Sareko presidentea; eta Guillermo Dorronsoro, iK4 Research Aliance-en presidenteorde exekutiboa. Azken mahai-ingurua azaroaren 18ko itxiera-ekitaldiaren aurretik egin zen eta “*Adierazleei*” buruzkoa izan zen. Hizlari gisa José A. Pérez Valentziako Unibertsitate Politeknikoko gerenteak, Juan Hernández Armenteros Jaengo Unibertsitateko Ekonomiako Doktoreak eta Fernando Casani UAMeko Enpresa Antolamenduko irakasleak hartu zuten parte.

Jardunaldietan Gizarte Kontseiluetako berrogeita hamar presidente eta idazkari inguruk baino gehiagok parte hartu zuten eta, halaber, honako hauek parte hartu zuten: Joaquín Moya-Angeler Gizarte Kontseiluen Konferentziako Presidenteak; Rafael Ferrando Valentziako Unibertsitate Politeknikoko Gizarte Kontseiluaren Presidenteak; EHUKo errektore Juan Juliá Igual-ek; Munduko Bankuaren Giza Garapenerako Hezkuntza Sarearen Hezkuntza Tertiarioko Koordinatzaile Jamil Salmi-k, besteak beste.